

Paulo Agirrebaltzategi

Kalos Santamaria Elkargunearen zuzendaria

Karlos Santamariaren hiru dimentsio nagusi

■ Etxeratu berria naiz Karlos Santamariaren ehorzketatik. Arratsaldean haren hiletta-elizkizunera joango naiz. Tartean gaur deitoratzen dugun gizonak bere bizitzan izan dituen zio-gaiak eta bere ekintzan landu dituen dimentsioak gogoratzen saiatu naiz. Dimentsio aberats eta askotarikoak ditu Karlosen bizitzak; hiru nagusienak nabarmendu nahi nituzke hemen.

1. Justizia eta Bakea

Pax Christi nazioarteko mugimendu katolikoaren idazkaria izan zen Karlos Santamaria zenbait urtetan, 1966ra arte; aurretik mugimenduaren estatu espainoleko saila antolatua zuen berak, eta horren lehen idazkaria izan zen 1960ra arte. Ehun artikulua eta idazlanetik gora argitaratu zuen gerraren eta bakearen gaiaz, bakezaletasunaz eta bakegintzaz, horietako batzuk aurretik hitzaldi. Eta badu liburua ere oso adierazgarria eta argigarria: La Oamenaza de guerra nuclear. Estrategia, política, ética (1985).

Bakearen eta gerraren alderdi etikoan eta abstraktoan geratu gabe, horren ingurune teknologikoak eta horren baldintza politikoak aztertzen zituen Santamaria. Areago, alderdi etikoak -eta teologikoak- azterketa teknologiko eta politikoan konkretutasun bizia eta erreialismo positiboa aurkitu zuten beraren pentsamenduan.

Pazifistatzaiz zuen bere burua, baina ukatu egiten zituen beldurretik sortzen den pazifismoa, pazifismo sentimental hutsa edota pazifismo idealista eta utopikoa, pazifismo testimonialari uko egiten zion bezala -pazifismo que se reduce a gestos-. Pazifismo aktiboa eta praktikoa defenditzen zuen, eragin politikoa bilatzen duen pazifismoa.

Bakearen adieraren erdi-erdiaren zuzentasunarena eta justiziarena dago, Karlos Santamariaren pentsamendu eta ekintzan. Justizian oinarritzen ez den bakea, bestalde, ez da bakea, beraren ustez. Areago, justiziaren aldeko lana da funtsean bakegintza. «...Como la verdadera paz es, según el viejo aforismo, obra de la justicia, para lograrla hay que atacar las mil formas de la injusticia en que se vive y acabar con ellas dentro de lo posible. Una paz sin justicia no es sino una apariencia de paz, idatzitua orain dela 40 urte (1958) El Diario Vasco egunkarian.

2. Fedea eta Kultura

Kristau fededuna zen Karlos Santamaria. Eta bere elizkariaren barruan edota eliz elkartetik bideratu zuen bere bizitzako hainbat ekintza. Bere fedearan oinarria eta zentzua argitzen eta horrek munduko ekintzan dituen eskakizunak sakontzen saiatu zen. Ez zen klerikoa -behin baino gehiagotan eliza klerikalaren kritika egin zuen-, eta bai laiko fededun aktiboa; ez zen teologo profesionala, baina bai

kristau pentsatzaile kritikoa. Kristau pentsamendu laikoaren aintzindaria izan dugu Karlos Santamaria Euskal Herrian, Europako mugimenduaren barruan.

Kristau fedeari eta pentsamenduari gaurko zientziak eta teknikak jartzen dizkioten galdera larriek erantzutea zuen bere kezka nagusietako bat, bera zientzilaria izanik eta zientzia eta teknologia modernoek aztertzaile izanik. Pentsamendu moderno ugariei buruz irekia, kultura moderno eta kristautasuna bateratzearen zerbitzuan ipini zituen pentsamendua eta ekintza. Donostian hainbat urte-tan antolatu zituen Conversaciones Católica Internacionales izeneko ekitaldiek helburu horixe zuten funtsean.

3. Euskarra eta Euskal Kultura

Ezagunak dira Karlos Santamariaren ahalegina eta lana euskararen berreskurapenaren eta horren modernizazioaren aldeko alorreran: Ikastolak, euskal prentsa, Euskal Unibertsitate eta bereziki Udako Euskal Unibertsitatea, euskarako hiztegi teknikoak... Hori guztia nabarmendu dute gizonaren heriotza ondoko lehen dossierrek. Urte zailetan euskararen eta euskal kulturengintzaren mundutik sorturiko ekimen nagusienak horixe aurkitu dugu Karlos Santamaria ekimenari eusteko eta bultzatzeko, laguntzeko eta parte hartetzeko prest.

Euskara justiziako kontutzaiz hartzen zuen berak, beste- ren artean, eta euskal kulturaren sustapena berak herrien kulturari buruz zuen kontzeptua berrestera zetorren. Euskararen berreskurapena eta euskal kulturaren garapena Euskal Herriari aitortu beharreko eskubidea ezeki, horren eraikitzen funtsezko elementutzat hartu zuen berak.

Euskaldun berria zen Karlos Santamaria; eta euskaraz egoki idaztera iritsi zen, ahalegin handiz. Eta bere ahalegina eta kemena, ondorengoztako itxaropen bihurtuz: harrotasunez zioen beren biloba ugariek, guztiek, zekitelara ondo euskaraz. Zalantzarik gabe eredia izan du euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimendu sozialak.

Ez da erraza erabakitzea, hiru dimentsio horietan zein izan zen nagusia Karlos Santamariaren bizitzan. Agian garaian arabera bata ala besteak garrantzi handiagoa hartu zuen bere ekintzan. Baina zalantzarik gabe, hirurak elkarrekin guztiz bateratuta joan dira haren pentsamenduan eta bizitzan; eta hiru horiek ipini diote azkenik marko bikaina haren bizitzaren koadro ederrari.

Hiru dimentsio eta ildo horien arabera hiru eremutan antolatu zuen, hain zuzen ere, duela urte batzuk sorturiko Karlos Santamaria Elkarguneak bere egitekoa: Justizia eta Bakea, Fedea eta Kultura, Euskara eta Euskal Kultura. Komunikazio, elkarriketa eta eztabaida sozialerako gune irekia izan nahi du K-S Elkarguneak hiru eremuotan. ■



Josu Lartategi



Gabonetako izpiritua

Iragarkiak dira, dudarik gabe, telebistak duen onena, baita Eguberriko zineko izpiritua ere. Hainbeste mediokritate, gaiztakeria eta zaborren artean, horratx oasi baketsua! horratx arte-puxka paisaia hitsean! Benetan, ez nabil txantxetan. Konturatu naiz iragarki batzuk filmetxo miragarriak direla eta segundu gutxi batzuetan sentsazio harrigarriak sor ditzaketela, istorioetxo horiek arte eta diseinuaren lan ederrak baitira. Batzuen fotografia, argien erabilera, musika eta irudien arteko elkartzea, gidoi elaboratua... bai ikaragarriak beren aberastasunean! Jakina, iragarki batzuk sinpleak dira oso; ez ordea enpresa handi, boteretsuek egiten dituztenak. Filmeen imitazio zein plagio lotsagabeak egiten dituzte sarri, bai, baina horiek ere ze ederrak! Gero eta harrituago naukate. Azken aldiari, aurtengo Gabonetan bereziki, iragarkiak baino ez ditut ikusten, eta neure zapping oro kanalez kanal iragarki atsegingarrien bila joateko egiten dut. Programazioaren enparaua baino higitzez hobe da eta. Horieta askoren aurrekontuak ikaragarriak dira, bestalde. Filme arrunt askoren bikoitzak eta laukoitzak ere. Eta kontratatzen dituzten soinu-aditu, argi-espezialista, fotografia-arduradun, gidoiak eta zuzendariak ere filme ugarirenak baino hobeak dira, eta gehiago ere kobratzen dute.

Guztiz horrek haien helburuetan hausnartzera narama. Tamaina horretako inbertsioak egiten badituzte zeezergatik izango da, jakina. Inork baino hobeto dakite Eguberriko publizitate-masmediatiko masiboaren onura zein den. Jakingo bagenu zenbat diru mugitzen duten, bati baino gehiagori bajetz bihotza ziplo gelditu! Jakingo bagenu ze memelo eta engai-naerazak garen! Areago orain, zortoneko Gabonotan.

Kornera

Mikel Elorza

364

■ Munduaren bi herenek ez daukate Gabonak zertan ospatu: ez dira kristauak eta urtea beste egun batean hasten dute. Hala ere, ez da luze joango Hiru Erregeak Txinako Harresi Handian pasean eta Bizarzuri Damaskoko azokan opariak banatzen ikusteko. Eta ez pentsa ekonomia eta geopolitikaren globalizazioak eta horrelakoek eragingo dutenik. Kontua da gero eta nabarmenagoa dela Gabonak telebistek asmatu dituztela. Jesukristoren aitzakia topatu dute ondoen egiten dituzten hiru gauzak egiteko: saldu, saldu eta saldu. Gabonak telebista bidezko azoka direla konturatuta, Fiji iletako azken kokoterora bidaliko dituzte Baltasar, Olentzero eta Noel jauna. Gaur da, gainera, ohartzeko egun aproposa: telebistak berak agindu digu apaindura eta kolore festa amaitu dela eta atzera aitzur, erratz, boligrafo eta ordenadoreei heldu behar diegula urtarirari eraso egiteko. Animo, 364 egun besterik ez dira falta urtea amaitzeko.

L A P I h I T Z A

